



2. DULANTZI MUSIKA FEST

PARTE HARTZEKO OINARRIAK

Dulantzi Musika Fest udalerriko kultur programa bat da, udalerriko musika sorkuntza sustatzeko helburua duena.

Herriko talde ezberdinekin kontzertu programa bat burutzean datza, bereziki asteburuetan uda garaian animatzeko, herritarrei udalerrian bertan alternatiba kultural bat eskainiz.

Programa asteburuetakoko kontzertuetan gauzatuko da: ostiral, larunbat eta igandeetan, maiatzetik urrira bitartean, Kultura Zerbitzuak talde parte-hartzaile bakoitzarekin koordinatuko duen emanaldien, ordutegien eta kokapenen egutegian oinarrituta.

Bakarlariek eta/edo talde musikalek edozein estilo modernotan parte hartu ahal izango dute: Dj, rap, folk, indie, pop-rock, punk, etab.

Parte-hartzaileak adinez nagusiak eta udalerrikoak izan beharko dira. Musika-taldeen kasuan, gutxienez kideetako batek errolatua egon beharko du, edo errolan bizi beharko du. Taldearen osaera ezin izango da aldatu.

Parte-hartzaileek gutxienez 60 '-ko iraupena bermatuko duen errepertorioa izan beharko dute, eta beren jatorrizko konposizioen interpretazio- eta egiletza-eskubideak izan beharko dituzte nahitaez. Erakundeak ez du erantzukizunik izango hirugarrenen aurrean egile- edo interpretazio-eskubideei dagokienez.

Parte-hartzaile bakoitza bere soinuztatze-taldeaz eta/edo bere jarduna gauzatzeko behar duen materialaz arduratuko da.

Udala arduratuko da kontzertuak hedatzeaz

Parte hartu nahi duten taldeek edo bakarlariek 2026ko maiatzaaren 8ra arte eman ahal izango dute izena, horretarako prestatutako formularioa betez.

Inprimakia <https://dulantzikoletakultura.eus/helbidean> egongo da eskuragarri, "Inscripción Dulantzi Musika Fest 2026" izenburupean.

Programa aurrekontuko -334.226.064 eta 334.226.060 partiden bidez finantzatuko da.

Talde kopurua aurrekontu-partida horren mende egongo da.

Hautaketa egiteko, aurreko edizioetan parte hartu izana kontuan hartu ahal izango da, hau da, aurreko edizioan parte hartu ez duten taldeak lehenetsi ahal izango dira, eta zenbait taldek kideak partekatzen dituztenean, horietako bakar batera mugatu ahal izango da hautaketa.

Udalak maiatzaren lehenengo astean egingo den hautaketaren emaitza jakinaraziko die izena eman duten talde guztiei.

Parte hartzen duten talde edo bakarlariek honako udal haborokina jasoko dute: DJ- 250 € Duo-450 € Taldea- 700 €

Programari eta parte hartzeko baldintzei buruzko edozein kontsulta Udaleko Kultura Zerbitzuan egin daiteke: 945 420 830, 9: 00etatik 14:00etara.